ataria

Emakume pentsiodunen duintasuna eskatuz

Kultura

'Laida pilota' ikuskizuna Villabonan eskainiko dute, eta Oinkariko dantzariez gain tartean dira Elixabet Jauregi amasarra eta Imanol Arabaolaza tolosarra

2018-12-14
975. zenbakia
107.6 fm
www.ataria.eus

Auto Suecia | Jauregui auzoa, 76, Hernani (Gipuzkoa) | 943 33 11 31

XC60 Premium Edition D3 momentum cambio manual. P.V.P recomendado para Península (excepto Extremadura y Cantabria) y Baleares: desde 34.950€ (IVA, transporte, aportación del fabricante y la Red de Concesionarios e impuesto de matriculación incluidos). Precio válido para unidades financiadas bajo la marca Volvo Car Financial Services (pertenecientes a Volvo Cars Group) a través de Banco Cetelem S.A.U. A-78650348 con un importe mínimo a financiar de 29.000€. Duración mínima 48 meses. Permanencia mínima 24 meses. Sujeto a la aprobación de Banco Cetelem S.A.U. Oferta válida únicamente para personas físicas y para vehículos vendidos antes del 31 de diciembre de 2018. El modelo visualizado no coincide con el vehículo ofertado. * Eskuzko abiadura aldagailua duen XC60 Premium Edition D3 momentum-i dagokion babestutako prezioa (Extremaduran eta Kantabrian izan ezik): 34.950 eurotik aurrera (BEZa, garraioa, fabrikatzailearen ekarpena eta kontzesionarioen sarea, eta matrikulatze zerga barne). Volvo Car Financial Services (Volvo Cars Group-i dagokiona) markapean finantzatutako unitateei dagokien prezioa, Banco Cetelem S.A.U. A-78650348-ren bidez finantzatuz gero, beti ere gutxienez 29.000 euroko finantzaketarekin. Gutxieneko iraupena 48 hilabetetakoa izan behar du eta gutxieneko egonaldia, berriz, 24 hilabetetakoa. Banco Cetelem S.A.U. Bankuak onartu behar du eragiketa. Eskaintza gizabanakoei eta 2018ko abenduak 31 baino lehenago saldutako ibilgailuei lotuta dago. Bistaratutako ibilgailua ez da eskainitako ibilgailu bera.

Ofrenda txiki bat

Ez dakit hau oparitzat hartu daitekeen, baina zuri eskaini nahiko nizuke gaur hemen esango dudana. Ofrenda txiki gisa, edo aitorpen modura agian.

Ez dizut esango elkar ezagutu genuen gau hartan bat-batean amodioaren tximistak jo ninduenik, egun hartako maitemina erakarpena izan baitzen ziurrenik eta ez maitasuna. Baina zer axola dio horrek! Erromantizismoaren topikoek ez digute ederki ematen nolanahi ere. Norbait maitatzea, batzuetan, hartutako burubidea ere izan daiteke. Bada, zu maitatzea aspaldi erabaki nuela uste dut. Zoriz (eta ez patuaren indarraz) topatu ginen arte, laranja baten erdi osatugabea ginenik ere ez dut uste. Txukuntze prozesuan dauden txalupa bi beharbada, itsasargi honen gerizpean nabigatuz. Ez dut betiko maitasunaren izenean zinik egingo, ez baitut uste gure esku egongo den erabakia denik. Itxaropen ase ezinak uxatuko ditudala eta maitasuna zurekin eraikitzen, zaintzen, jarraituko dudala diotsut ordea. Baita sortu dugun harreman ona mantentzeko eta hobetzeko konpromisoa hartu ere. Ez zaitut pertsona perfektuaren idealarekin neurtuko; ez baitut perfekzioarekin harreman bat nahi, zurekin baizik. Ez zara urdin kolorekoa, zorionez, ezta printzea ere. Baina ez dut Letizia Ortiz berdintzeko gurarik, lasai. Xaloagoa den norbait aukeran nahiago. Zutaz gain pertsona gehiago maitatzen ditudala ere aitortu behar dut. Nire bikotekide izateko esklusibotasunaren ohore zalantzagarria zurea den arren.

OLATZ GODOY
KALE KANTOITIK 07.6 FM

Badakit orain arte esandako guztiak filmetako maitasun aitorpen kartsuen alboan nahiko gatzila dirudiela. Baina ofrendek sutsuak baino, zintzoak behar dute izan. Zintzoki diotsut beraz, baietz, maite zaitudala. Zure azaleko tankeraz gain, zure barneko kobazuloetan barrena miaketa-misioan joaten uzteagatik. Nire kaosaren barrena espeleologo lanetan sartzean, aurkitutakoak aurkitu eta gero zure mugikorrean 1-1-2 zenbakiak ez zanpatzeagatik. Maite zaitut! Aho biziegia dudan arren belarria beti prest duzulako. Zure paparraren kontra estutzen nauzunean osatu egiten nauzulako. Zure muxuek diotenarengatik. Hainbeste arrazoirengatik eta zergatirik gabe maite zaitut.

Horixe da ba, errudun honen aitortza. Koloreetan, gorabehera guztiekin, eboluzio konstantean maite zaitudala. Baina, zein ote naiz ni maitasunaz aritzeko? Maitemindurik dagoela dioen txoriburu bat besterik ez. Horrelako hitz potoloak ikus-entzunezko medioetan erabiltzeko behar den kategoria ez dudanaren susmoa dut. Ez behintzat sona handiko norbaiten aipurik gabe... Beraz, axola ez badizu horren gustuko dudan Nick Caven kanta hori aipatuko dut amaitzeko: jainko eskuhartzaile bat denik sinisten ez dudan arren, sinestuko banu belaunikatuz eskatuko nioke zuri dagokionez esku ez hartzea.

Ez zaitut pertsona perfektuaren idealarekin neurtuko; ez baitut perfekzioarekin harreman bat nahi, zurekin baizik

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **KOORDINATZAILEA:** Rebaka Calvo
KUDEATZAILEA: Iban Urdapilleta Alkizalete **TELEFONOA:** 943 655695 **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46 **WEBGUNEA:** www.ataria.eus
POSTA ELEKTRONIKOA: ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 · 687 4100 33 · 107.6 FM **PUBLIZITATEA:** 661678818 · publi@ataria.eus

ATARIAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

tolosaldeko ataria

TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA, SM-KO KIDEAK:
BERTAKO HEDABIDEAK · galtzaundi · berria · Txolarre
Tolosaldeko gizarte eragileak

bai euskarari · erabiltzea eta lana euskaraz · Bikain

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

TOLOSALDEKO ATARIA DIRUZ LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Azaleko irudia:
Josu Artutxa

Herri batzarra egingo dute Orendainen, igandean

Aurtengo udal aurrekontuari buruzko informazioa emango da, eta datorren urteari begirakoa aurkeztuko da

I. Garcia Landa Orendain

Herri batzarra egingo dute, igande honetan, Orendainen. 12:00etan elkartuko dira udaletxeko osoko bilkura aretoan, eta udaletik eskatu dute gutxienez etxe bakoitzetik ordezkari bat joateko bertara. Udal aurrekontua izango dute hizpide, besteak beste, batzarrean. Zehazki, aurtengoari buruz informatuko dute, eta urtearen bukaeraren aurreikuspena zein den azalduko dute. Horrez gain, datorren urteko udal aurrekontuaren aurkezpena egingo dute.

Laida Plazaola parte hartze teknikariak herrian egiten diren ikastaroen berri emateaz gain, Euskaraldia eta Indarkeria Matxistaren Aurkako Egunaren inguruan sortu diren lan taldeen berri emango du. Bere aldetik, Gorka Egia alkateak aurten egin diren inbertsioen berri emango du, eta auzolan proposamena egingo du, Orendaindik Alegiara bitarteko bidea garbitzea, hain zuzen.

Batzarraren aurretik, 11:30ean, herri bideen inguruko lan talde bat osatzeko bilera irekia egingo dute udaletxean. Bileran herri bideak identifikatu eta konponketa egiteko egutegi bat finkatu nahi dute.

Alegiako Gaztetxearen urteurrenaren asteburu bereziena, gaurtik hasita

Hiru egunez ekitaldiak antolatu dituzte, tartean gaur egingo den bertso desafioa, eta biharko egun osoko egitaraua

Imanol Garcia Landa Alegia

Alegiako Gaztetxea 31. urteurrena ospatzen ari da asteotan, eta asteburu hau egitarauaren bereziena izango da. «Ikusi genuen antolatu behar genuen egitarauaren zati indartsuena, babarrun jatea egingo genuen asteburua izan behar zuela», esan du Alex Goikoetxea Gaztetxeko kideak. «Buelta batzuk eman ondoren, atera zen ideietako bat bertso saio bat egitea izan zen». Hain justu, gaur bertan izango da saio hori, 22:30ean hasita.

Gipuzkoako herriarteko bertso txapelketa jokatu izan da Alegiako Gaztetxean, eta irabazlea Aiztondo bailarako talde bat izan zen. «Talde horren aurka desafio moduan hartu zitekeela pentsatu genuen, bertsotan ondo aritzen diren herriko bertsolariekin taldea osatuta», zehaztu du Goikoetxeak. Herriarteko formatuan izango da eta zati bat musikatua izango da. Alegiatik ariko direnak Mikel Artola, Imanol Irazustabarrena eta Iker Iriarte bertsolariak izango dira. «Bertsolaritzan badago mugimendua eskualdean, zenbait bertso eskola daude, horietako bat Gaztetxean bertan elkartzen dena, eta kultur arloan musika kontzertuez gain beste jarduera bat antolatu nahi genuen», esan du Goikoetxeak.

Iazko babarrun jatearen une bat. J. ARTUTXA

Biharko eguna izango da urturreneko egun nagusia, eta egun guztirako ekitaldiak antolatu dituzte. Hasteko, 11:00etan Kalebeherako frontoiko pilota txapelketako finalak jokatuko dira. Ondoren, bertso poteoa egingo da. Bazkaria babarrun jatea izango da, Gaztetxean bertan. «Bazkal ondoren zerbait berezia sartu nahi izan dugu, eta bertako musikarien artean abesti batzuk prestatuko ditugu, karaoke estiloan», esan du Arkaitz Balda Gaztetxeko kideak. Arratsalderako txaranga izango da, 18:30ak aldera, eta gauean kontzertuak izango dira, 22:30ean hasita, The Potes, MC Onak eta Rotten XIII taldeekin.

Iganderako ere utzi dituzte zenbait ekitaldi: bakarlari baten emanaldia, mahai jokoak eta pintxo potea. «Arratsaldea lasai pasatzea da asmoa», esan du Baldak.

tolosaldeko ataria
ataria irratia · ataria internet · ataria prentsa
Zure iragarkia argitaratzeko:
661 67 88 18
publi@ataria.eus

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Hi Haiz Hi! jaialdiaren aurkezpena egin dute kultur etxean dagoen Topagunean. I.G.L.

Indarkeria matxistaren aurka, «mila pauso aurrera»

Hi Haiz, Hi! jaialdia antolatu dute datorren asteazkenerako, batxilergoko ikasleek Tolosako Udalaren laguntzarekin

Imanol Garcia Landa

Bederatzigarren urtez Hi haiz, Hi! jaialdia antolatu dute Tolosako hiru ikastetxeetako batxilergoko lehen mailako ikasleek, udalaren laguntzarekin. Datorren asteazkenean, abenduaren 19an, 20:00etan, Topic-en izango da ekitaldia.

Jaialdiaren aurkezpenean Nuria Carbonell Kultura, Jaiak eta Gazteria zinegotzia eta antolakuntzan parte hartzen ari diren ikasleak izan dira. Carbonellek adierazi duenez, «genero indarkeriari dagokionean aurretik dugun ibilbidea oso luzea da, baina baita ere esan behar da pauso batzuk eman ditugula. Tolosako Udala beti prest dago indarkeria sexista prebenitzeko, detektatzeko, eta jarrera aktiboak sustatzeko, eta honetarako hemen dauzkagu gazte pila bat oso lanketa ona egiten ari direnak». Zinegotziak gaineratu duenez, «indarkeria sexista ardatz izanik Tolosako ikasleekin lan dinamikak ezarri eta garatu ditugu, jaialdi hau lanketa horren muina izanik».

Prestakuntza saioak

Aurkezpenean izan diren ikasleek azaldu dutenez, Beldur Barik egitasmoaren barruan eskola prestakuntza saio batzuk jaso dituzte urrian, eta ondoren indarkeria sexistaren inguruan interesa zutenek biltzen jarraitu dute, Hi Haiz Hi jaialdia antolatuz, *Guztiok batera mila pauso aurrera* lelopean.

Aurten landu dituzten gaiak aipatu dituzte: emakumeak historian, hezkuntza sexista eta estereotipoak, mikromatxismoak eta eguneroko jazarpenak, sexualitatea eta ahalduntzea. Prestakuntzan ikasleak Tolosako Udaleko Gazteria eta Berdintasun teknikariekin elkarlanean eta Kattalin Minerren gidaritzapean aritu dira. Jaialdirako hainbat lan prestatu dituzte. Horietako bi Beldur Barik - Hi Haiz, Hi! Lehiaketara aurkeztu ziren bi bideo, *1000 esker* Iruratik eta *Ireki begiak* Tolosatik. Horiek zuzenean parte hartuko dute datorren asteazkeneko jaialdian. Bestalde, jaialdirako espresuki hainbat ikuskizun prestatu dituzte. Aurten, lehiaketarako literaturaren atala ere zabaldu dute. Jaialdian parte hartzen duten lan horietako bi sarituko dira, 225 euroko txeke banarekin.

Ekitaldirako sarrerak bost euro balio ditu eta Topic-eko leihatilan eskuratu ahal izango da egunean bertan. Ohiko eran, jaialditik lortutako dirua ikasleen ikasturte amaierako bidaia finantzatzera bideratuko da. Antolakuntzan aritu diren ikasleek zein Carbonellek jaialdira joateko deialdia egin diete herritarrei.



AMEZKETAKO UDAL EGUTEGIKO ARGAZKIAK PREST

Amezketako udal egutegia osatzeko argazki lehiaketak baditu irabazleak. Alaitz Labaien, Aiora Aranburu, Aitziber Alustiza, Enaitz Telletxea, Garazi Arregi, Ixiar Altuna, Izaro Arebalo, Joxe Mari Mujika, Lenengo Telletxea, Maider Gaztelumendi, Nerea Unsain eta Zuhara Telletxea. ATARIA

Olentzeroren Basoa sortu du Zumardia elkarteak, Elosegi parkean

Abenduaren 17tik 23ra bisita gidatuak egingo dituzte Elosegi Parkean zehar, 3 eta 8 urte bitarteko haurrentzat

Erredakzioa

Naturaz gozatzeko beste egitasmo bat jarriko du martxan Zumardiak: Olentzeroren Basoa. Elosegi Parkean ibilbide bat osatu dute, garai bateko usadio, sinismen eta istorioak berreskuratzeko asmoz.

Kriseilutxo baten argipean, 45 minutu inguruko saioak egingo dituzte parkean barrena abenduaren 17tik 23ra, 17:00etatik 20:00etara. Olentzerorekin batera ikatza egiten izandako lagunek gidatuko dituzte ibilbideak, eta bere borda eta lana ezagutzeaz gain, nola ez, haurrek idatzitako gutunak uzteko aukera izango da amaieran.

Elkartetik adierazi duten moduan, «neguko solstizioak gure kulturan izan duen garrantzia azpimarratu» nahi dute: eguzkia, basoa, sua, sendabelarrak...

Izen-ematea zabaldu dute dagoeneko, zumardiaren webgunean. Bestelako gaien inguruan harremanetan jartzeko, *olentzerobasoa@gmail.com*

Izen-emateak zabalik daude, jada, Elosegi parkeko Olentzeroren basoa ezagutu ahal izateko

helbidera idatzi daiteke. Haur bakoitza, gehienez, heldu batek lagunduta sartu ahal izango da.

Eguberrien bueltan beste hainbat jarduera eta egitasmo ere antolatu ditu Tolosako Zumardia elkarteak. Beren webgunean –*www.zumardia.eus*– nahiz *www.ataria.eus* webguneko komunitatean eskura daiteke horien guztien inguruko informazioa.

Zine bonu berriak bihar jarriko dituzte salgai Tolosan

Abenduaren 15etik urtarrilaren 17ra bitarteko zine zikloko filmez gozatzeko balioko du txartelak

Erredakzioa

Bihartik aurrera, eskuragarri izango dira Leidor aretoko zinema emankizunez gozatzeko bonuak. 11:00etatik 13:00etara zabalduko dute leihatila eta, hortik aurrera, zine emanaldien aurretik ere erosi ahal izango dira bonoak.

Ziklo berria abenduaren 15etik urtarrilaren 17ra bitartekoa izango da eta, aipatzekoa da, epealdi horretan zenbait emankizun berezi izango direla, eta bonodunek ere ordaindu egin beharko dutela sarrera: *Dantza* eta *Bohemian Rhapsody* filmeen kasua izango da.

Horrela, beraz, honakoak izango dira, datorren hilabetean Leidor aretoan ikusi ahal izango diren filmak: abenduaren 15ean, *Malos tiempos en el Royale*; abenduaren 16an, *Colette*; abenduaren 17an, *Jainkoak ez dit barkatzen* Josu Martinez zuzendariaren aurkezpenarekin; abenduaren 20an, *Climax*; abenduaren 22an, 23an eta 25ean, *Dantza*ren estreinaldia; abenduaren 27an, *Entre dos aguas*; abenduaren 28an, *Bohemian Rhapsody*; abenduaren 29an eta urtarrilaren 1ean, *El árbol de la sangre*; abenduaren 29an eta 30ean, *El veredicto*; urtarrilaren 3an, *Misión imposible. Fallout*; urtarrilaren 4an, *Ralph rompe internet*; urtarrilaren 6an eta 7an, *Mi obra maestra;* urtarrilaren 10ean, *Petra*; urtarrilaren 12an eta 14an, *La noche de 12 años;* urtarrilaren 12an eta 13an, *Viudas*; eta, azkenik, urtarrilaren 17an, *El último vals*.

Gogora ekartzekoa da, haurrentzako zine bonuak ere ordu eta egun berean jarriko dituztela salgai Leidorren. Kasu horretan, urtarrilaren 20an amaituko da zikloa eta, guztira, 8 saio izango dira, igande eta jai egunetan, 17:00etan.

Osasun ziztada bat bizitzari

Yolanda Saizar eta Ziortza Larrarte dira, Tolosako Bizziz dendako arduradunak. I. URKIZU ARSUAGA

Apiterapia eta glutenik eta laktosarik gabeko elikagaiak eskaintzen ditu, Tolosako Aroztegieta kalean, Bizziz establezimenduak

Urriaren 18an soineko berriz zabaldu zituen, Tolosako Aroztegieta kaleko 1. zenbakian, garai bateko Txirrita dendako ateak. Yolanda Saizarrek eta Ziortza Larrartek Bizziz proiektuari ekin diote bertan eta, dendarentzat aukeratutako izena ez da kasualitatea: beren eskaintza osasun ziztada bat da, osasunarentzat.

Lokalaren jabeak apiterapiaren inguruko egitasmoren bat jartzeko ametsa omen zuen eta, horrela, duela pare bat urte proposamena egin zion Yolanda Saizarri: «Niri erakargarria suertatu zitzaidan, eta Ziortzari ideiaren berri eman nion. Horrela, apiterapiari begirako produktuekin batera, beste hutsune bat betetzea ere erabaki genuen: glutenik gabeko produktu freskoak eskaintzea».

Horiek dira, beraz, Bizziz-en ardatz nagusiak: erlauntzetik bideratutako produktuak eta glutenik gabeko produktu freskoak. Dendako arduradunek azpimarratu dute, «gero eta jende gehiagok» eskatzen dituela glutenik gabeko produktuak; izan ere, zeliakoen elkartearen arabera, zeliakoen %70 diagnostikatu gabeak dira eta, gainera, alergiak eta intolerantziak ere badira.

Modu horretan, «okindegi eta gozodendetan ez dauden produktuak» eskura daitezke Bizziz-en: ogia, pastak, opileria, madalenak, tartak, pastelak eta horrelakoak. Aipatzekoa da, bide batez, Eguberriei begira glutenik gabeko errege opilak ere eskainiko dituztela, eta aurrez egin beharko dela eskaera, abenduaren 22a baino lehen.

«Saltoki handietan bada glutenik eta laktosarik gabeko produktuen eskaintza, baina, ia beti, ekoizle horiek azukre eta kontserbagarri asko izaten dituzte; guk hortik bereizi nahi izan dugu». Horregatik, produktu freskoen eskaintzarekin batera, irinari eta zerealei loturiko glutenik gabeko ontziratuak ere badituzte Aroztegieta kaleko txokoan: pasta, zerealak, ogia, saltsak nahiz garagardoa.

Eztia harribitxi

Establezimenduaren zigilua produktu bakar eta bereiziak eskaintzea da eta, bide horretan, Bizziz dendako apalategietako ezti eskaintza ere lanketa baten ondoren aukeraturikoa izan da. Batetik, Gipuzkoako bi erlezainekin lan egiten dute, zuzen-zuzenean. Ezti ekoizle baten erleak laku berean egoten dira urte osoan barrena eta, aldiz, beste eztigileak Nafarroan eta Araban izaten ditu eta, urte garaiaren arabera, lekualdatu egiten ditu erleak: «Horrek, ia lore bakarreko eztiak lortzeko aukera eskaintzen dio, nahiz eta Euskal Herrian hori oso zaila den». Hain justu horregatik, Espainiako beste bi ekoizleren produktuak ere badituzte dendan, lore bakarreko eztiak bezeroen eskura jartze bidean.

Eguberriei begira, glutenik gabeko errege opilak enkarguz eskatzeko aukera izango da, abenduaren 22ra bitarte

Euskal Herriko ekoizleen eztiak ekologikoak dira, eta erosi aurretik dasta daitezke.

Eztia produktu izarra da, erlauntzetik eratorritakoen artean, baina, Bizziz-en, erlauntzetik eratorritako beste hamaika salgai ere badituzte: propolea hainbat formatotan, kremak, xaboiak, jalea,... Azken horien hornitzailea familia txiki bat da eta, Bizziz dendaren bide beretik, kalitatea lehenesten dute.

Azkenik, apiterapia zerbitzuak biribiltzen du, bizitzarako ziztada osasuntsuaren ideia. Erlearen pozoina edo apitoxina bidezko tratamendua da, bereziki onuragarria gihar eta artikulazioetako hanturetarako, nahiz gaixotasun inmunologikoetarako, eta zortzi asteko gutxieneko tratamendua beharrezkoa da. Tolosaldean, Bizziz aitzindari izan da apiterapia zerbitzua eskaintzen, eta aurrez hitzordua eskatzea beharrezkoa da, erleen ziztada bidezko tratamenduari ekin aurretik, kasu bakoitza aztertzeko.

Bizziz establezimenduari buruzko informazio osoagoa eta xehetasunak jasotzeko, Tolosako Aroztegieta kaleko lehenengo zenbakira jo daiteke, edo 943 53 59 03 eta 688 77 81 33 telefono zenbakietako batera deitu.

ERREFUXIATUEN ALDE EGINDAKO LANA IKUSGAI

'Errefuxiatuak: gaur zu, bihar ni?' erakusketa ikusgai izango da abenduaren 20ra arte Zizurkilgo Plazida Otaño liburutegiko erakusketa gelan, errefuxiatuek bizi duten egoera azaleratzea da ekimenaren helburua

Jon Miranda

Hotz Legazpi taldea 2016tik ari da lanean eta denbora honetan proiektu asko bideratu ditu errefuxiatuen alde, besteak beste, arropa eta janari bilketak, hitzaldiak eta sentsibilizazio kanpainak burutu ditu. Ihesi joan behar izan dutenen oinarrizko beharrak asetzera eta osasun eta hezkuntza arloko proiektuak garatzera bideratu dute laguntza. Asmo horrekin, aurtengo apirilean egin zuten topo Crearte proiektuarekin.

Arriondaseko (Asturias, Espainia) institutuan du sorburua proiektuak. Bertako ikasleek Atenaseko Squad City plazako haur errefuxiatuekin harremana egin eta haiek egindako marrazkiak katiluetan serigrafiatu zituzten, gero, azoka solidario batean saldu eta bildutako dirua errefuxiatuei bideratuz. Asturiasen abiatutako proiektua zabaltzen joan da pixkanaka eta Hotz Legazpi elkarteak apirilean erabaki zuen ekimenarekin bat egitea. 500 katilu baino gehiago saldu zituzten eta Itsasondo, Legorreta eta Zaldibian ere beste hainbeste jarri zituzten salgai.

Zizurkileraino iritsi da katilu solidarioen egitasmoa eta aurreko urrian egindako Azoka Berezian hainbat herritar aritu ziren boluntario gisa katiluak saltzen. Hain zuzen, Zizurkilgo kultura sailaren ekimenez iritsi da Plazida Otañora erakusketa, Jon Maiztegi, Hotz Legazpiko kideak azaldu du: «Gurekin harremanetan jarri eta erakusketaren bat prestatuta ote geneukan galdetu ziguten. Ordura arte ez zitzaigun burutik pasa ere egin, baina horrelako kasuetan amestu egin behar da».

Katilu solidarioekin lortzen duten dirua, Itsas Salbamendu Humatarioa eta En Red Sos Refugiados elkartera bideratzen dute eta haiengana jo zuten Hotz Legazpikoek lehenik eta behin. «Errefuxiatuen inguruan urte guzti hauetan elkarte askorekin izan dugu harremana eta elkarte bakoitzak bere materialaren zati bat utzi du gure esku erakusketa txiki hau antolatu genezan». Aipatutako bi elkarteekin batera, Pasaportes para Siria, Zaporeak, Javi Julio argazkilariaren lanak eta Hotz Legazpik urteotan burutu dituen kanpainen argazki eta materialak bildu dituzte. Horrekin batera, noski, katilu solidarioak salgai jarriko dira Plazida Otañoko erakusketa gelan, bakoitza 10 euroan.

Zizurkilgo erakusketan katilu solidarioak izango dira salgai. J.M.

hilberriak • urteurrenak • eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • **Harpidedunentzat 50 €**

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • **Harpidedunentzat 75 €**

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • **Harpidedunentzat 25 €**
bez barne

ataria**n** jarrita
Goierriko eta
Urola Kostako
Hitzetan DOAN

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu
Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

Ataria bertso jaialdia 2019

Sarrerak Atarikideentzat 10€

Zure sarrerak hartzeko Atariaren bulegora etorri, gehienez bi sarrera bakoitzeko:

Abenduak 17, 18, 19 eta 20an
12:00etatik 19:00etara.

Abenduak 21 eta 27an
09:00etatik 13:00etara.

San Esteban 20, Tolosa

Urtarrilak 19, larunbata, 19:00etan Tolosako Leidor antzokian

Maialen **Lujanbio**

Andoni **Egaña**

Amets **Arzallus**

Oihana **Iguaran**

Nerea **Ibarzabal**

Haritz **Mujika**

Gai jartzailea
Amaia **Agirre**

Antolatzailea

Babeslea

Laguntzaileak

Atarikide ez direnentzat sarrerak urtarriletik aurrera

Aisiako Emakumea Pilotari Txapelketa Azkarreko iazko protagonistak Beotibarren. ATARIA

Emakume pilotarien egun osoko jaialdia

Bihar goizean txapelketa azkarra izango da Tolosako Beotibarren, eta arratsaldean, Emakumea Pilotariko finalak

Erredakzioa

Aurreko denboraldietako arrakasta ikusirik, aurten ere emakume pilotariak protagonista izango dituen festa eguna antolatu dute Tolosako Beotibar pilotalekuan, bihar. Goizean, Aisiako Emakumea Pilotariko Paleta Txapelketa Azkarra jokatuko dute. Hamar bikotek eman dute izena aurten txapelketan: Edurne Osa - Helena Artano; Kristina Ezkurdia - Emeren Gelbenzu; Ana Odriozola - Maria Ostolaza; Mirari Arzalluz - Amaia Aizpuru; Leire Martin - Eneritz Elorza; Larraitz Etxaniz - Amaia Gonzalez; Isa Ayerdi - Maite Almandoz; Amaia Alkorta - Arantxa Gorostegi; Ane Diaz - Maialen Garmendia eta Laura Carretero - Ana Mayozek.

Bi multzotan banatuko dituzte pilotariak, 09:45ean egingo den zozketan. 10:00etan hasiko da ligaxka, eta 14:00ak aldera arte ligaxka jokatuko dute. Partida guztiak 15 tantora edo 10 minutura izango dira.

14:30ean bazkaltzeko elkartuko dira denak, eta 15:50ak aldera finalerdiak hasiko dira: aurrena A multzoko lehen bikote sailkatua B multzoko bigarrenaren aurka, eta ondoren B multzoko lehenengoa A multzoko bigarren sailkatuaren kontra. Finalerdiak 15 tantora edo 15 minutura izango dira. Finala, berriz, 16:30ean jokatuko dute, hau ere, 15 tanto edo 15 minutura.

Federatuen finala, ondoren

Ezker Hormako Emakumea Pilotari Txapelketaren gomazko paletako finalak jokatuko dira segidan, 17:30etik aurrera. Eskualdeko orderazkariak bertan izango dira, gainera.

Bigarren mailako finala jokatuko da lehenengo: Mateos-Agirre eta Lopez-Herrero izango dira nor baino nor gehiago.

Jaialdiarekin amaitzeko, lehen mailako finala jokatuko dute Irazustabarrena eta Arrillagak, Maiza eta Mendizabalen aurka.

Belauntzan Bola Txapelketa jokatuko da

Sari oparoak prestatu dituzte biharko jokorako; izena egunean bertan eman behar da, txapelketa aurretik

Erredakzioa

Belauntzako bolatokian Bola txapelketa bat ospatuko da, bihar. Izena emateko, 09:30etik 11:30erako tartea egongo da, 5 euroren truke. Edozeinek parte hartu ahal izango du eta sari ederrak prestatu dira sailkapen orokorreko lehen sei emakume eta gizonezkoentzat. Lehenengo herritar emakume eta gizonezkoarentzat ere saria egongo da. Amaieran, Belauntzako Ostatuan sari banaketarekin batera, saski eder bat zozkatuko da parte hartzaile guztien artean.

Belauntzako Bola Txapelketa, Gipuzkoako Bola eta Toka Federazioa egiten ari den proba batzuren harira datorrela azaldu dute antolatzaileek. Izan ere, Belauntzako bolatokiko egurrezko irteera oholaren egoera ikusita, –guztiz usteldua eta erabil ezina–, burdinazko «ohola» batengatik aldatzeko proposamena egin zitzaion udaletxeari. Beraz, bi helburu lortu nahi dira txapelketarekin:

Bata, burdinazko oholaren erantzuna aztertzea aurrerago erabaki bat hartzeko. Garai batean bai bola, ohola eta brilak egurrezkoak izaten zirela baina azkar hondatzen zirenez mantenu handia eskatzen zuten.

Bestetik, bigarren helburu bezala, Belauntzako jendea parte hartzera animatu nahi izan dute, gazte jendea ere bilduaraziz. Belauntzako Udala, Belauntzako Ostatua, Joxe Mari Barriola Harategia eta Gipuzkoako Bola eta Toka Federazioari eskerrak eman dizkie, ekimena aurrera ateratzen laguntzeagatik.

TALDE NAGUSIAK

LAUBURU IBARRA
La Union Calatayud
Areto futbola. Bigarren B Maila. Larunbatean, 18:30ean, Ibarrako Belabieta kiroldegian.

LASKORAIN IKASTOLA
Pinseque
Areto futbola. Bigarren B Maila. Larunbatean, 18:30ean, Tolosako Usabal kiroldegian.

ANOETA FT
Idiazabal
Areto futbola. Gipuzkoako Seniorrak. Ostiralean, 22:00etan, Anoetako kiroldegian.

LAUBURU IBARRA
SAMANIEGO ORIXE
Areto futbola. Gipuzkoako Seniorrak. Ostiralean, 21:15ean, Ibarrako Belabieta kiroldegian.

Jatorria Boleibol
TOLOBOLEI BIDEBIDE
Boleibola. Bigarren Maila. Igandean, 12:00etan, Gasteizen.

Anaitasuna
TOLOSA CF
Futbola. Mutilak. Erregional Ohorezko Maila. Larunbatean, 17:00etan, Azkoitian.

Ostadar
BILLABONA KE
Futbola. Mutilak. Erregional Preferentea. Larunbata, 15:45ean, Lasarte Oriako Michelin futbol zelaian.

Gure Txokoa
TOLOSA CF 'B'
Futbola. Mutilak. Erregional Preferentea. Igandean, 17:00etan, Bera Bidasoan.

Sporting De Herrera
INTXURRE KKE
Futbola. Mutilak. Lehen Erregionala. Larunbata, 17:30ean, Donostiako Herrera futbol zelaian.

Vasconia
DANENA KE
Futbola. Mutilak. Lehen Erregionala. Larunbatean, 15:30ean, Donostiako Puion.

INTXURRE KKE
Aloña Mendi
Futbola. Neskak. Emakumeen Gorengo Maila. Igandean, 16:00etan, Alegiako Elorri futbol zelaian.

Beti Onak
TOLOSA CF
Eskubaloia. Lehen Nazional Maila. Larunbatean, 18:00etan, Atarrabiako Indurain Anaiak Kiroldegian.

Cocinas.com
TAKE REDLINE MEKANIKA
Saskibaloia. Mutilak. Lehen Maila. Igandea, 12:00etan, Logroñoko Espartero kiroldegian.

TAKE
Bera Bera Gros
Saskibaloia. Neskak. Gipuzkoako Seniorrak. Larunbata, 16:00etan, Tolosako Usabal kiroldegian.

OSTIRALA ABENDUAK 14

AMASA-VILLABONA, BEARZANA
PEBETEN FINAL-LAURDENAK
19:00. Esku pilota partidak:
– Urbieta–Urruzola / Maiz–Aranalde.
– Eneko Labaka–Telletxea / Salaberria–Balerdi.

TOLOSA
BEOTIBAR PILOTALEKUA
20:45. Zesta punta finalak, a lebin eta infantiletan.
– Lete (Danok Bat)–Garikano (Zumaia)/Iturbe–Balda (Beotibar).
– Agirre (Zumaia)–Itoiz (Beotibar)/ Altuna (Beotibar)–Apaolaza (Danok Bat).

LARUNBATA ABENDUAK 15

AMASA-VILLABONA, BEARZANA
PEBETEN FINAL-LAURDENAK
11:00. Esku pilota partidak:
– Santxo–Bergera/Exposito–Alduntzin.
– Peru Labaka–Elizegi/ Apezetxea–Murgiondo.

BELAUNTZA
BOLA TXAPELKETA
10:00. Bola Txapelketa.

TOLOSA
UZTURPE KIROLDEGIA
12:00. Boleibola. Tolobolei Samaniego–Laskorain Elduaien taldeak, Toloboleiko gaztetxoek, finala jokatuko dute.

TOLOSA
BEOTIBAR PILOTALEKUA
Goizean zehar. Paleta goma partidak.
17:30. Lehen eta bigarren mailako Gipuzkoako finalak.

IGANDEA ABENDUAK 16

TOLOSA
BEOTIBAR PILOTALEKUA
10:30. Gipuzkoako esku pilota txapelketa.
– Amiano–Garciandia (Tolosa CF–Aurrera)/Lapke-ko bikotearen aurka. Bigarren mailako kadeteen finalerdia.
– Amiano (Tolosa CF–Aurrera)/Altuna (Tolosa CF–Aurrera). Jubenilen mailako final-laurdena.
– Lasa (Tolosa CF–Aurrera)/Zubeldia (Intxurre). Jubenil mailako final-laurdena.
16:30. Migel Soroa–Ogi Berri Pilota Txapelketa:
–Osa–Elizegi (Gazte leku)/ Murua–Gartzia (Bergara).
– Julen Egiguren (Ilunpe)–Apezetxea (Umore Ona)/Mata–Cordon (Oberena).
–Zubizarreta–Garmendia (Lapke)/Peru Labaka (Zazpi Iturri)–Alduntzin (Zugarralde).

‘13+1 Migrazio eta zaintzen bideak’ erakusketaren irekiera, gaur

Argazki erakusketaren irekiera Aranburu jauregian izango da, 18:00etan, Tolosaldea Garatzenek antolatuta

13+ 1 Migrazio eta zainketen bideak izeneko argazki erakusketa ikusgai egongo da Tolosako Aranburu jauregian, gaurtik hasi eta urtarrilaren 15era bitartean. Katia Henriquez Dominguez argazkilari eta ekonomialari feministak eginda. Jarduera Tolosaldea Garatzeneko Migrazio eta Aniztasun sailetik antolatu da; Tolosako eta Getxoko Udalaren finantzazioa du eta Zurrumurruen Aurkako Sarearen, Bidez Bide elkartearen, Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesa.

Zaintzak, Migrazioak eta partekatutako erantzukizunei buruzko solasaldia izango da, gaur, *Migrazio eta zainketen bideak 13+1* izeneko argazki erakusketari irekiera emateko Aranburu jauregian. 18:00etan hasiko den ekitaldian hurrengoek hartuko dute parte: Emilia Larrondo de Martino, emakume migratzaileen lan eskubideen alorreko erantzun politikoari buruz egindako ikerketaren ondorioak aurkeztuko dituena; Katia Henriquez Dominguez eta Cony Carranza Castro, soziologoa eta Getxon Emakume Migratzaileen Topaketen dinamizatzaileak.

Argazki-antropologiari buruzko proiektua da erakusketa, Getxon lekukotutako eta zainketa-arloan diharduten emakume migratuen historiatan oinarrituta. Erakusketan askotariko emakumeak ikus daitezke, toki eta kultura desberdinketakoak, ama-hizkuntza, adin, ibilbide eta esperientzia ezberdinetakoak, beren kultur ekarpenekin gizartea aberasten dutenak. Argazkilariak emakume horiek euskal gizarte garaikidean duten zeregina ikusgai egin, zabaldu eta horrekiko sentikortu nahi du.

Aldi berean, hilaren 15ean *Zaintzaileak Zainduz* tailerra Bidez Bide elkartearen eskutik garatuko da Tolosan. Tailerrera apuntatzeko mesedez aldez aurretik asistentzia konfirmatu behar da Tolosaldea Garatzenera deituz 943 654 501 (6) edota *migrazioa@tolosaldea.eus* helbide elektronikora idatziz.

Erretiroa

Nikola Teslak korrente alternoa asmatu zuen (gaur egun etxeetan duguna). ATARIA

Askoren ametsa da asmakuntza baten ideia izan, patentea erregistratu eta bertatik sortutako irabaziek erretiroa ziurtatzea. Inspirazio jainkotiarraren fruitu gozo bezala irudikatzen dute batzuk, urtetako lan gogorraren emaitza bezala besteek.

Gaur egun dena asmatuta omen eta asmatzailearen irudia marrazki bizidunetara edota Xiaomiren Pekineko bulegoetara mugatzen dela dirudi. Ohituta gaude telebistako programazioarekin eta bideo jokoekin lokartzen gaituztela, harremantzeko moduen digitalizazioarekin lehentasunak desitxuratzen direla eta lanaldi luzeekin sormenerako kemena galtzen dugula bezalako esaerak entzutera. Badira, hala ere, beren garajean edo etxeko txoko batean muntaia elektromekaniko, elektroniko eta kimikoak burutzen dituzten saltseroak. Maker mugimendua martxan da duela urte batzuetatik, gutxiengo baten esperimentu gosea ase nahian. Buru egonezin hauen proiektuak, gehienetan, lehendik frogatutako saiakerak errepikatzera mugatzen dira eta ez zerbait berriaren bila.

ANDER LORENTE
IRAKASLEA ETA INGENIARIA

Izan zen, nahitaez, asmakuntza handiak egin ziren garairen bat. XIX. mende bukaeran «elektrizitatea» zen hitz magikoa. Edisonek bere izenean jarri zuen bonbillaren asmakuntza eta Ameriketako Estatu Batuak argiztatu nahi izan zituen korronte jarraiarekin. Asmakuntza batek bi helburu posible ditu: lehendik zegoen behar bati erantzutea edota behar berri bat sortzea. Garai hartan gasa erabiltzen zen etxe Ipar Amerikarrak argiztatzeko, beraz, behar berri bat sortu behar izan zen. Korronte elektriko jarraiaren argia, aberatsen argia bezala definitu zen bere erabilerraztasun eta usain ezari ohore eginez. Propagandak eta merkatuaren legeak egin zuen gainontzekoa. Hala ere, Edisonek kontrolatzen zituen enpresek sortutako sistema ez zen batere efizientea elektrizitatearen garraiorako. Aurrerapausoa bere langile batengandik etorri zen, historiak isilarazi duen Nikola Teslagandik hain zuzen ere. Teslak korronte alternoa asmatu zuen (gaur egun etxeetan duguna) eta bere asmakuntza Edisonena baino hobea zela frogatu nahian xahutu zituen indarrak. Urteen poderioz bere asmakuntzak aurrera egin duen arren, Edisonen propaganda eta abokatuek ez zioten bidea erraztu eta historia liburuetan bere izen eta izanaren inguruan egiten diren aipamenak gaur egun ere oso urriak dira. Energia libre, garbi eta doakoaren alde lan egin zuen Teslak bere bizitzan zehar, 300 patente erregistratuz, eta pobre eta mehatxupean hil zen.

Energia libre, garbi eta doakoaren alde lan egin zuen Teslak bere bizitzan zehar, 300 patente erregistratuz, eta pobre eta mehatxupean hil zen

Boterearen erantzun ofiziala alternatiba jasangarriak isilarazi eta gasen emisioei prezio bat jartzera mugatu da

Ez dute amaiera hobea izan uraren bidez funtzionatzen duten motorraren asmatzaileek. Ba omen dira, bai, erregai gisa ura erabiltzen duten motorrak. Erregai solidoen industria bertan behera botako lukete urte gutxi batzuetan eta hau onartezina da gobernu askorentzako gaur egun. Honegatik, beraz, publikoki beren asmakuntza argitaratu edota gobernuen eskuetan utzi dutenen ibilbideak patroi berdinak jarraitu dituzte: kartzelatzeak, pozoitzeak, desagertzeak eta zentro psikiatrikoetan giltzapetzeak. Bitartean, boterearen erantzun ofiziala alternatiba jasangarriak isilarazi eta gasen emisioei prezio bat jartzera mugatu da. Alberto Vazquez-Figueroa idazleak aipatu zuen asmakuntza iraultzaile bat izandakoan nori on egiten dion begiratu aurretik, adi egon behar dela kaltea jasaten duenak duen botereari.

Saltsero, maker, asmatzaile eta guztion sormenaren beharra dugu alternatibak sortzeko, baina kontuz ibil gaitezen erretiroaren fruitua mikaztu ez dakigun.

www.ataria.eus · 107.6 fm
2018ko abenduaren 14a

«GUTXIENEKO SOLDATAREN ZIFRA JADA ESLOGAN BAT BIHURTZEA LORTU DUGU»

NEKANE BERRIOTXOA
ONEKA PLATAFORMAKO BOZERAMAILEA

Pobreziaren Aurkako Nazioarteko Egunean aurkeztu zituzten Oneka plataformari buruzko lehen ideiak eta helburuak, Donostiako Emakumeen Etxean. Bertan izan zen Nekane Berriotxoa Urretxun jaiotako tolosarra. Ekimen berri honen xehetasunak azaldu dizkigu, eta horrez gain, egungo gai sozialez eta indarkeriaz ere aritu da.

Josu Artutxa Dorronsoro

Ederki asko oroitzen ditu diktadura garaiko urteak. Halaber, atzera begiratzea gehiegi gustatzen ez zaion horietakoa da Nekane Berriotxoa Segurola (Urretxu, 1949). Emakume pentsiodun bat baino gehiago. Hitz egiteko moduagatik, langile borrokatua izango zela dirudi. Irakaslea izan zen 30 urtez; lehenik Zumarragan, eta ondoren Villabonan. Osasun arazoak medio, erretiroa hartu behar izan zuen duela zortzi urte, bizkar gainean mende erdi bat zuela. Orain, Oneka izeneko emakume pentsiodunen plataformako bozeramailea da. Tartean kafea hoztu zaion arren, dotore eta trebe aritu da galdera-erantzunetan.

Oraindik honi buruz ezer entzun ez dutenentzat, zer da Oneka?

Pentsiodunen mugimenduetan parte hartu izan dugun emakumeok osatzen dugun talde bat gara. Lehendik, Gipuzkoa mailako emakumeak Zarautzen biltzen ziren, une eta data puntualetan. Hala ere, gure arazo zehatzei irtenbide bat emateko asmoz, bilkura gehiago egiteko eta emakumeen presentzia areagotzeko beharra ikusi zen. Nahiz eta erretirodunen taldean egon, gai ugari planteatu behar genituela uste genuen, eta beraz, arazo horri irtenbide bat emateko asmoz sortu zen plataforma.

Talde motor bat dago, pixka bat plataformaren antolamendua aurrera eramaten duena. Bi bilera mota egiten ditugu, lurraldetasunagatik banatutakoak. Lehena, probintzia mailan egiten dugu; ondoren, lau probintzietako kideak biltzen gara bakoitzaren zalantzak mahai gainera azaldu eta arazoei irtenbideak emateko. Azaroan egin genuen lehen bilera, Bilbon, eta hura inflexio-puntu moduko bat izan zen.

Zein motatako emakumeak zaudete taldean?

Emakumeok bizitza osoan zehar lan handia egin izan dugu, batzuek beste batzuek baino gehiago ekoitziz, eta gehienek gutxi kotizatuz. Ondorioz, kotizazio baxuak eman direlako heldu gara orain gauden puntu honetara. Garbiketa edota zaintza lanetan aritutakoak gara gehienak, baina guztiak ere egoera desberdinak bizi izan ditugunak. Oraindik elkar ezagutzen eta ideiak partekatzen ari gara.

Emakumeek historian zehar errekonozitu ez zaizuen aberastasun bat sortu duzuela diozue. Hala ere, kotizatu ez duzuenez, gutxieneko soldata bat jasotzeko eskubiderik ez duzuela adierazten zaizue. Hori bere horretan geratzea bai ez dela eskubidea, ezta?

Dudarik gabe! Gure helburua jende horrek gutxieneko sol-

data bat izan dezan da. Ez alargun geratu delako, noski. Jakitun gara pausoz pauso joan behar dugula aurrera. Gainera, kontuan izan behar dugu nondik gatozen. Erretiroa hartuta dugunok, diktadura batetik igarotakoak gara. Orduan, enpresariek emakumeak lana uztera behartzen zituzten, eta beldurra ikaragarria zenez, ezinezkoa zen lanean jarraitzea.

Alargun geratu direnen kasua ere arazo sozial handi bat da, emakumeen kasuan batez ere. Diruaren %100 jasotzetik, %52 jasotzera igarotzen zarela uste dut, eta urtarriletik aurrera %60ra igo nahi dute. Hala ere, gastu batzuk bikoiztu egiten dira, eta beste batzuk ordaintzera, berriz, pertsona bakarra pasatzen da. Horrela heldu gara gauden tokira, eta gure artean pobrezian bizi diren emakume ugari izatera. Gainera, ezkutatutako informazio gehiegi dago. Askotan, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko aldeen estatistikak ez dituzte ematen, eta datuak jakin gabe geratzen gara askotan.

Onekaren estatistikei erreparatuta, 300 emakume zeundeten izena emanda aurkezpenaren egunean. Izan al da aldaketarik taldean?

Oraindik ere zaila da zifra zehatz bat jakitea. Seguruenik gorantzako joera izango du, bete beharreko fitxa teknikoak biltzen ari garelako orain.

Agian, jendeak ez du zuen berri izan.

Baliteke. Gainera, Bilboko bilkura hura egin arte, gure izena ez zabaltzearen hautua egin genuen. Hala eta guztiz ere, aste honetan hasi gara herri desberdinetan lehen hitzaldi informatiboak eskaintzen (Tolosan, asteartean egin zuten), eta nik uste urtea amaitu bitartean eskualde bakoitzean aurkezpenak eginez, jendearengana gehiago hurbiltzearekin batera, zifra handiagoetara iristea lortuko dugula. Lehenik, Gipuzkoa mailan zer nolako jendea gauden ikusi nahi genuke, haiekin informazioa partekatuz, eta parte hartzea ahalbidetzeko, solasaldiak zabalduz.

Bizi duzuen egoera ekonomikoa larria da, eta pentsio duinen alde jende ugari irten zarete kalera azken hilabeteetan. Gazteak ere batu dira aldarrikapen horietara. Baina, goi karguetakoek entzun dizuetela uste duzue?

Erantzunak behintzat jaso izan ditugu. Izan ere, pentsiodunen elkarteko kideek alderdi politiko indartsuenetako ordezkariekin bilerak egin dituzte. Une honetan, Iñigo Urkullu lehendakariarekin biltzeko egindako eskaeraren erantzunaren zain gaude. Oneka plataformako kideok ere, lehenik eta behin, politikariekin biltzeko asmotan gabiltza, geure burua aurkeztu, ideiak mahai gainean jarri eta ekarpenak egiteko. Urte berriarekin batera, Emakunde elkartearekin biltzeko ideia ere buruan darabilkigu. Gainerako emakume taldeekin ere bildu nahi dugu, eta adibidez, Emari mugimendu feministarekin harremanetan gaude.

Pentsiodunentzat, erraza da bizimodua aurrera eramatea?

Kasu desberdinak daude, eta pertsonalak dira asko. Baldin eta zein lan egin izan duzun edota kotizatutakoaren arabera, aldeak txikiagoak edo handiagoak izan daitezke soldaten artean, eta baita gizonezkoen eta emakumezkoen artean ere.

Zuek aldarrikatzen duzuena zifra bat da: 1.080 euro. Hori da emakume pentsiodunentzat eskatzen duzuen gutxieneko soldata.

Halaxe da bai. Duela hiru urte, 71.000 sinadura bildu ziren Euskal Autonomia Erkidegoan, gutxieneko soldata hori eskatuz, eta zifra hori (1.080) jada eslogan moduko bat bihurtu denez, mantentzea erabaki dugu. Badakigu, ordea, zaila dela, emakumeon %75ak kopuru hori baino gutxiago jasotzen dugulako. Askok, gainera, kopuru oso eskasak darabiltzate esku artean.



Eta zein pauso eman behar dira zifra horretara heltzeko?

Kontuan hartu behar da, Espainiako Gobernua une honetan aurrekontuarekin gora eta behera dabilela, eta horrek guri ere eragiten digula. Egia da kalkulu batzuk egin zirela. Aurrekontuan 420 milioi euroko igoera emango zela esan zuten aurrena; gero, ordea, kantitate hori jaitsi egin dute. Beraz, ez dakigu nondik joko duten ere.

Gizarteko esparru askotan, parekidetasunetik oso urrun aurkitzen gara. Indarkeria geldiezina da, behin eta berriz gertatzen dena. Gainera, pentsioetan ere aldea handia da. Horri ere erantzun bat eman nahiko diozue.

Bai, bai, hala da. Gainera, plataforman bertan, sindikatuetan lan egin duen jendea dago, beste batzuk politikoki mugimendu feministetan parte hartu dute, eta bestelako langile ohiak ere badaude. Hortaz, bakoitzaren esperientziak, nolabait ere, indarra ematen digu. Emakumeon artean, errekonozitu gabeko indarkeria ugari dago. Oraindik gehiegi jabetzen gara lehenaldian, eta aurreko garaiei erreparatzen diegu. Hau da, garrantzia ematen diogu «Nondik gatoz?» galderari, gaur egun ere biolentziak hor jarraitzen duela kontziente izan gabe.

«Emakumeok bizitza osoan zehar lan handia egin izan dugu, batzuek beste batzuek baino gehiago ekoitziz, eta gehienek gutxi kotizatuz»

Sarri, gainera, biolentzia fisikoari erreparatzen zaio, bestelako indarkeriak ere badira, ordea.

Noski! Biolentzia edo indarkeria psikologikoa askotan okerragoa izaten da, eta lanean jasaten dena zer esanik ez. Beste kontu bat heldutasunik eza da. Helduen eta Zerbitzu Sozialen Institutuarekin egindako bidaietan askotan haurrak bagina bezala tratatzen gaituzte. Orduan esaten duzu: «Adineko pertsonak gara, baina ez umeak, helduak baizik».

Gizarte Segurantzako sistema propio bat eraikitzea beharrezko ikusten du Onekak. Nolakoa izan beharko luke sistema horrek?

Gehienbat lurralde ikuspegitik abiatutako sistema bat beharko litzateke. Gertukoak ditugun arazo soziologiko, politiko edota ekonomikoei erantzungo lieken bertako eragileren bat edo sistema bat izatea nahiko genuke. Madril, azkenean, oso urrun geratzen zaigu guri. Eurek hartzen dituzte erabakiak, eta beraz, arazoak eta erabakiak gure eskuetan egongo balira, hobeto egongo liratekeela pentsatzen dugu.

Hala ere, azkenean, betiko problematika berarekin ibiltzen gara bueltaka. Estatutuak aurkeztu genituenean, Nafarroako emakume pentsiodunen datuekin batera egin genuen, baina orain guztia atzera bota dute, eskaera hiru probintzietako emakumeek soilik egin behar genuela esanez. Nafarroako emakumeek euren aldetik egin beharko dute. Orduan, lurraldetasun legeek indarrean jarraitzen dute sistema honekin.

Oneka plataforman, ez dakit legerik duzuen, baina talde motor batekin lan egiten duzuela aipatu duzu lehen. Nolakoa da funtzionamendua?

Oraingoz gauzak ez ditugu gehiegi aldatu. Talde motorrak lau probintzietako jendea hartzen du, eta honek markatzen du plataformako partaide guztiek jarraitu nahi duten norabidea. Nahiz eta lehen aipatu bezala gauza batzuk ezin izango ditugun elkarrekin egin, EAEko nahiz Nafarroako emakumeok linea bera jarraitzea dugu helburu. Bestalde, duela bi aste Gipuzkoan lehen biltzen ziren emakume pentsiodunekin egin genuen lehen bilera. Hortik abiatuta, ikusi beharko da zenbat jende dagoen prest parte hartzeko, eta nola antolatuko garen gero. Guztiak, beraz, zifren arabera funtzionatuko du. Bitartean, aurkezpenak egiten eta jendea animatzen jarraituko dugu.

Ikusezin modura kalifikatzen duzue emakume pentsiodunen burua. Nola egiten zaio aurre egoera horri?

Azkenean, jaramonik egiten ez zaion gauza larri bati erreparo gehiago izatea nahi dugu, eta moduak aldatzea, noski. Hizkuntz gramatikari dagokionez, euskaraz ez da hala gertatzen, artikulu bera erabiltzen delako gizonezko nahiz emakumeentzat. Gazteleniaz, baina, artikuluek bi sexuak alderatzen dituzte, eta batzuetan, pluraleko izen maskulinoa erabiltzen da. Orduan, zeure buruari galdetzen diozu: «Orokorrean ari da, gizonezko eta emakumezkoak zaku berean sartzen, alegia? Edo gizonezkoez soilik?». Zalantza handiak izatera behartzen gaituzte, etengabe geure buruari galderak egitera. Ez gara ohartzen, baina horrelako kasu ugariren aurrean aurkitzen gara egunero, eta horiek aldatzea ezinbestekoa da, berdintasunaren bidean eta emakumeok ikusgarri bihurtzeko bide horretan nolabaiteko urratsak eman ahal izateko.

Onekak emakume pentsiodunen ikusgarritasuna bilatu nahi du, eta bere helburua betetzeko, zabalkunde lana erabat garrantzitsua da. Nola daramatzazue mobilizazioak?

Nahiko goiz da mobilizazioetan gabiltzala esateko. Baina, bai, gure izena eta eginkizuna herrietan zabaltzea ezinbestekoa da. Gainera, laguntza handia dugula aipatu beharra dago, talde mistoekin egiten baitugu hedapen lana. Bide horretan, pixkana hitzaldiak eskaintzen joango gara, emakumeek euren interesa azaltzeko asmoz. Helburuak markatuta badaude ere, horiek betetzeko bidea marraztu gabe dago oraindik. Ez dugu plan konkreturik, eta jakitun gara aurrera eta atzera ibiliko garela.

Donostiako Emakumeen Etxean aurketu zuten Oneka plataforma, eta tartean da, Nekane Berriotxoa tolosarra. ONEKA

Bestelako eragileen laguntza jasotzea eta elkarlanean aritzea aipatu duzu lehen.

Bai. Eta sektore desberdineko langileekin ere ideiak partekatu nahi ditugu: Nekazariekin, baserritarrekin, arrantza munduko langileekin, preso izandakoekin, indarkeria pairatu dutenekin... Horien egoerari buruz informazioa jasotzeaz gain, gure plataformaren berri ematea eta gure ideien nahiz helburuen nondik norakoak azaltzea izango litzateke asmoa. Emagin, Euskal Herriko Bilgune Feminista ere euskarri eta laguntza indartsu bat izango da marraztu gabe dagoen bide hori eraikitzerako orduan. Jende gaztea dabil bertan, eta beraz, desberdina izango da, baino horri ere helduko diogu.

Lehen zifra bat aipatu dizut; orain data bat: Martxoak 8. Aurtengoa ikaragarria izan da. Datorren urterako lanaldi osoko grebara deitu dituzte emakumeak. Pozik, ezta?

Bai. Erabaki bikaina iruditzen zait, eta greba horretan parte hartzeko asmoa dugu guk ere, elkarri lagundu, eta arazo desberdinak ditugula adierazteko. Geroz eta gazte gehiagok egiten dituzte aldarrikapenak eta geroz eta gehiago dira mobilizazioetara gehitzen direnak, eta gure plataformaren barruan ere belaunaldi desberdinei bideratutako ideiak ditugu. Oso urruti ikusten dute guk orain bizi dugun egoera, baina gauza bera gerta ez dadin, arazoaz lehenago jabetzea beharrezkoa da. Horregatik, atzetik datozenek ere soldata duinak izatea ezinbestekoa da.

«Oso urruti ikusten dute guk orain bizi dugun egoera, baina gauza bera gerta ez dadin, arazoaz lehenago jabetzea beharrezkoa da. Horregatik, atzetik datozenek ere soldata duinak izatea ezinbestekoa da»

Pilotari gorazarre egingo zaio

Bihar, 22:30ean, Villabonako Olaederra kiroldegian eskainiko dute Pier Paul Berzaitzek zuzendutako 'Laida Pilota' ikuskizuna, besteak beste, Oinkari dantza taldeko dantzariek hartuko dute parte eta eszena zuzendari gisa Elixabet Jauregi amasarra eta Imanol Arabaolaza tolosarra ariko dira.

Jon Miranda

Zer litzateke Euskal Herria pilotarik gabe? Galdera horri erantzuten dio Pier Paul Berzaitzek (Muskildi, Zuberoa, 1952) *Laida Pilota* ikuskizunean. Kirolaz harago, mugimendu sozialtzat du pilota eta bertsoarekin, kantuarekin eta dantzarekin lotuta ikusten du. Pilota ikuskizun orokor gisa, garai bateko herriko jaietako pilota partidekin batera izaten ziren dantza emanaldi eta bertso saioak gogoan hartuta. Hori bera, taula gainera ikusaraziko dute, bihar, Villabonan.

Ekainaren 30ean, Donapaleun, 700 ikusleren aurrean estreinatu zuten ikuskizuna. Orduko hartan, emanaldiaren amaieran hamabi pilotari ohi igo ziren agertokira eta haiei gorazarre egin zitzaien. Zentzu hori baitu ikuskizunak, pilotaren mundu osoa laudatzea, *laida* egitea. Gerora, Senperen, Hazparnen eta Miarritzen ere eman dute ikuskizuna.

Euskal mitologiari erreferentzia eginaz, Mutrikuko Mendibeltzuburu mendian jentilek harrizko pilota handiekin jolasten zuteneko garaiak gogoratuz hasten da emanaldia, eta puskaka, tradizioa modernitatearekin lotuz osatzen da pilotaren inguruko narrazioa, besteak beste, Koldo Amestoiren kontakizunekin eta Magali Zubillagaren ahotsarekin. Hain zuzen, pilotak berezkoa duen aniztasuna eraman nahi izan du Berzaitzek taula gainera. Landarbaso abesbatzaren kantuak, Villabonako Oinkari taldearen eta Mauleko Xateletarrak konpainiaren dantzak eta Xabier eta Aner Euzkitzeren bertsoek osatzen dute emanaldia, besteak beste. Joxan Goikoetxeak ondu ditu ikuskizunean zehar eskainiko diren doinuetako asko.

> **Orotara, ia 50 lagunez osatutako ikuskizuna da, bihar, Olaederra kiroldegiko kantxan eskainiko dutena**

Errebotearen lurraldean

Emanaldian eskaintzen diren beste kantuetako batzuk, tradizionalak dira. Esate baterako, Iratiko Basorrailarena. XX. mende hasieran Iratiko artzainak urtean hiru aldiz biltzen ziren eta egun osoko festa egiten zuten, pilota, meza, bazkari eta bertsoen artean. Errebotea egoten omen zen, ospakizun horien erdigunean. Iratiko basoko pasarte horiek ere irudikatuko dituzte *Laida Pilota* ikuskizunean, eta bihar, errebote jokoa oraindik ere bizirik dagoen herrian ikusi ahal izango dira.

Orotara ia 50 lagunez osatutako ikuskizuna da Olaederrako kantxan eskainiko dutena eta okasio gutxi izango dira, aurrerantzean, emanaldia berriz ikusteko. Hendaiako Bixintxo jaien barruan eskainiko dute urtarrilaren 18an eta Parisera bidaiatuko dute parte hartzaile guztiek otsailean, han ere, pilotari gorazarre egiteko.

'Laida Pilota' ikuskizuneko bi momentu. EGOITZ BENGOETXEA

«PILOTAK BERAK IZAN DUEN GARAPENA ERAKUSTEN DA, SORRERATIK GAUR ARTE»

ELIXABET JAUREGI ETA IMANOL ARABAOLAZA
'LAIDA PILOTA'KO ESZENA ZUZENDARIAK

«Ilusio berezia» dute, orain arte Iparraldean bakarrik eskaini den ikuskizuna, Villabonan emateko, «urduri baina pozik» daude eskualdeko jendearen aurrean bihar gauean aritzeko.

J.M.

Ez dira zuzendari artistikoak, lan hori, Pier Paul Berzaitzek hartu baitu beregain. Iparraldeko euskalkian, taulada zuzendaritza da Elixabet Jauregik (Amasa, 1988) eta Imanol Arabaolazak (Tolosa, 1982) egiten dutena. Ikuskizuneko eszenak antolatu eta josteko lana hartu dute eskualdeko bi lagunek.

Nola sortu zitzaizuen 'Laida Pilota' ikuskizunean parte hartzeko aukera?

Elixabet Jauregi: Landarbaso abesbatzako sopranoa izan nintzen 2009ra arte. Beti jarraitu izan dut haiekin harremanetan eta proiektu ezberdinetarako behar izan banaute laguntza eskaini izan diet. *Gernika, ilunetik argira* proiektuan parte hartu genuen Imanolek eta biok. Bonbardaketaren inguruko istorio bat lotu genuen, kantuak, dantza eta interpretazioa uztartuz.

Imanol Arabaolaza: Emanaldi horretan antzeko lanetan aritu ginen elkarrekin. Elixabetek eta biok aurretik ere ezagutzen genuen elkar antzerki mundutik eta *Gernika, ilunetik argira* ikuskizunean lan talde polita osatu genuela ikusita, saio honi heldu genion, kasu honetan, formatu handiagoan.

E.J.: Pier Paul Berzaitzek, ikuskizunaren zuzendariak, Landarbasora jo zuen *Laida Pilota* prestatzeko eta abesbatzako zuzendari Iñaki Tolaretxipi gurekin gogoratu zen. Berzaitzek artistikoki argi zeukan zer nahi zuen emanaldirako, baina eszenografian lagunduko zuen norbait behar zuen eta orduan hots egin ziguten. Oso gogotsu eta pozik hartu genuen proposamena, baina aldi berean beldurtuta, horrelako proiektu erraldoi baten zuzendaritzak lan karga handia baitakar.

Zein da eszena zuzendari baten lana?

I.A.: Gure lana da agertokian figura guztiak koordinatzea. Abesbatza, dantzariak, bertsolariak... jende asko dago taula gainean eta haien sarrera-irteerak, desplazamenduak, non ibili, espazioak nola bete eta loturak nola egin zehaztea da gure egitekoa.

Aurrez zer nolako lana egin duzue ikuskizuna prestatzeko?

E.J.: Hasiera batean Berzaitzekin bilera dezente egin genituen. Bere buruan zuen ideia hartu eta gidoi batera pasa genuen, eszenografiara bideratzeko. Berzaitzek konfiantza osoa jarri du guregan eta guk antolatu dugu, guk erabaki dugu istorioaren haria nondik nora eraman.

I.A.: Talde ezberdinetako ordezkariekin bilerak egin genituen aurrena eta hasiera batean paperean eman genion forma gidoiari. Gero talde bakoitzak bere etxeko lanak egin ondoren abiatu genituen entseguak, eta gure lana, guztia behar bezala jostea izan da.

Zer nolako adierazpide artistikoak baliatu dituzue emanaldia osatzeko?

Elixabet Jauregi Mendizabal (Amasa, 1988)

Lehen Hezkuntzan diplomatua eta Psikopedagogian lizentziatua. Lanbidez, Lehen Hezkuntzako irakasle izan arren, gaztetatik agertu izan du abesbatzarako eta antzerkirako zaletasuna. 16 urterekin hasi zen antzerki ikasketako lehen pausuak ematen eta Elena Aranbarri edo Maite Agirre bezalako irasleak izan ditu. Abesbatzan ere txikitatik parte hartu izan du, haurtzaroan Eresargi Txikiko partaide izan zen eta 2009. urtean Landarbasoko partaide bihurtu zen. Bertan, sopranoa izan zen lau urtez, Iñaki Tolaretxipiren zuzendaritzapean.

Imanol Arabaolaza Galarraga (Tolosa, 1982)

Industria ingeniari mekanikoa, makina erreminta enpresa batean langilea da. Argi eta soinu teknikari lanean aritua.

Tolosako kultur etxeko antzerki taldeko kidea Elena Aranbarriren zuzendaritzapean. Klown eta ipuin kontalari ikastaroetan parte hartua. Bertsolaritza munduan gai-jartzaile lanean aritua. 2011ko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan gai-jartzaile taldeko partaide izan zen.

Landarbaso taldearekin *Gernika ilunetik argira* ikuskizunean parte hartu zuen eszena zuzendari moduan Elixabet Jauregirekin batera, hain zuzen.

«Berzaitzek konfiantza osoa jarri du guregan eta guk erabaki dugu istorioaren haria nondik nora eraman»

ELIXABET JAUREGI MENDIZABAL
ESZENA ZUZENDARIA

«Pilotak berak, bere borobil horretan, bere sipletasunean dituen lotura guztiak ematen ditu ezagutzera emanaldiak»

IMANOL ARABAOLAZA GALARRAGA
ESZENA ZUZENDARIA

E.J.: Nire ustez ikuskizun honen xarma hori da. Berzaitzek adierazi nahi zuena zen, nahiz eta pilota kirola izan, kirol horrek inguruan daukan harreman folkloriko eta historikoa aberatsa dela. Pilotaren inguruan sortu izan diren festak, abestiak, dantzak... horiek denak jaso nahi izan ditu emanaldi honetan.

Artistek egiten duten lana azpimarratu nahi duzue, bereziki.

I.A.: Iparraldetik Xateletarrak datoz, Johañe Etxebest izan da gure lotura haiekin. Koldo Amestoyk ere bere berezitasuna ematen dio emanaldiari eta bertsotan aritzen dira Aner eta Xabier Euzkitze. Magali Zubillaga eta Landarbaso abesbatzak ere badute parte inportantea.

E.J.: Egia esan artista talde bikaina daukagu, denean erantzun dute oso ondo, eta horrela errazagoa da lan egitea. Pier Paul Berzaitzek oso argi zuen zeintzuk nahi zituen ondoan emanaldi honetarako. Abesti jakinak prestatu dituzte, beren-beregi, Landarbasok kantatu ditzan. Presentzia handia du abesbatzak, eta baita Joxan Goikoetxearen musikak.

Zein parte du Oinkari dantza taldeak emanaldian?

I.A.: Zortzi dantzari dira, lau neska eta lau mutil. Dantzatuko dituzten dantza guztien musika Joxan Goikoetxeak sortua da, hain zuzen.

Eta koreografiak?

E.J.: Oinkarik koreografo mundialak ditu eta beraiek sortu dituzte dantzak. Pilotaren historian hari bati segitzen dio emanaldiak eta guk nondik norakoak eta zertzelada batzuk eman genizkien eta esan beharra dago lan bikaina egin dutela.

Gehiegi aurreratu gabe, zer da biharko emanaldian ikusi ahal izango dena?

I.A.: Pilotak berak izan duen garapena, sorreratik gaur arte, zein esparruetan ikusi ahal izan den eta lehenagoko pilotariek utzitako herentzia goraipatu nahi da. Aipamena egiten zaie modalitate ezberdinei eta pilotagileak, pilotariaren eskuak... irudi horiek baliatu nahi izan ditugu. Pilotak berak, bere borobil horretan, bere sinpletasunean, atzetik dituen lotura guztiak ematen ditu ezagutzera. Hori guztia goraipatu nahi izan da, dantzaz, bertsoz edo kantuz.

Nahiz eta taula gainean ez agertu, zuek ere bihar Olaederran izango zarete.

E.J.: Esan beharra dago, Imanolek parte hartze txikiak egiten dituela momentu puntualetan. Baina gure lana, batez ere, atzeko lana da. Entsegu orokorrean, soinu probetan eta emanaldian bertan izaten gara dena koordinatzen. Tentsioa izaten da, ezusteko gauzak sortu daitezkeelako. Konfiantza osoa daukagu artistengan, baina gertatu izan zaigu emanaldiaren erdierdian danbolinaren larrua lehertzea, adibidez. Horrelakoei aurre egin behar zaie.

Ez da erraza izango horrelako muntai bat mugitzea, ezta?

I.A.: Kontuan hartu behar da 40 lagunetik gora aritzen direla emanaldi honetan, taula gainean izaten direnak, eta atzean, muntaian eta koordinazioan aritzen garenak batuta. Denen agendak uztartzea da lanik zailena.

Berezia da zuentzat emanaldia Villabonan eskaintzea?

E.J.: Bai, noski. Niretzat, amasarra izanik, berezia izango da. Horrek alde batetik poza dakar, baina baita presioa eta urduritasuna, jende ezaguna etorriko delako ikustera. Gustatuko zaienaren kezka horrekin nago. Orain arte, esperientzia politak bizi izan ditugu.

I.A.: Ahalegin berezi bat egin nahi izan da Villabonara ekartzeko, Iparraldean emanaldiak izan duen harrera ikusita, bertako jendeak ere aukera izan dezan *Laida Pilotaz* gozatzeko. Are gehiago, errebote jokoak Villabonan duen garrantzia ikusita.

Pilotazaleentzako emanaldia al da bakarrik?

E.J.: Ez. Pilotazaleei eta bestelakoei ere gustatuko zaie. Beste gauza asko ere ukitzen ditu eta edozeinentzako modukoa da ikuskizuna. Dantzazale eta kantuzale asko dago Amasa-Villabonan eta denentzako tokia izango da bihar Olaederran.

Mahala

BASERRIKO PRODUKTUAK

Jogurtak eta postreak
Gaztak
Izozkiak
Haragiak
Ondu xerratuak
Hestebeteak

Mahala Baserria - Leaburu (Gipuzkoa) - 943 670 724 - mahalanaturala.com

Zeliakoentzat gai dira gure produktu guztiak

iragarki laburrak .eus

iragarkilaburrak.eus

hemen eta online

Txepetx gizajoaren istorioa

Kalean noanean paseatzen, tartean baten batek nire aurpegia ikusi ta «*Joño! Hi radion eta periodikoan eskribitzen diken biologoa haiz!*» esaten didate. Elkarrizketa interesgarri eta idazteko datu ugari ateratzen dira topaketa horietan, ez dugu atzematen gure ahoz ahoko kultura ekologikoaren dimentsioa zein den... eta zoritxarrez hemendik hamar bat urtera galdu egingo da. Elkarrizketa horietatik konturatu naizena da, gizarteak bizidunekiko duen ulermena nahiko okertua dela. Kalean topatzen duzun jendearen ehuneko handi batek, bizidunak historikoki perfekziorantz doazela pentsatzen du. Espezieak etengabe hobetzen doazela eta etengabeko bide horretan soilik hoberenak, indartsuenak, adimentsu eta azkarrenak aurrera ateratzen direla eta ia ezinezkoa zaie ulertzea, inteligentzia gutxiko animalia bat milioika urteetan zehar egon ahal dela gure planetan bizitzen, gu baino arrakasta handiago izaten eta ziurrenik, guk planeta hau birrintzen dugunean bizirik jarraitu duela urteetan zehar. Bizidunak ez doaz perfekzioranzko bidean, soilik bizirauteko bidean doaz, berdin dio nola, soilik bizirautea eta ondorengoak izatea. Hemen adibide bat guztia ulertzeko.

Imajinatu badugula txepetx ar bat, gaztea eta dotorea, habia ederrak eta ugari egiteko gai dena, gaztetasunaren indarrez betea dago, urte bikaina igaro du eta oso osasuntsu dago. Luma bizi eta mokoa prest dago. Badakigu, txepetx arrek, habiak egiten dituztela emeak konkistatzeko, eta ez badakizu datu hau, irakurri idatzi nuen txepetxari buruzko artikulua. Gure ar eder honek hamar habia bikain egin ditu, non, bakoitzera eme bat hurbildu den, hamarretik hamar, euskal ligoteoaren errekorra da. Behin bere emeak habietan prest dituenean, bere lumak apaindu eta emeak ugaltzera doa habiaz habia banan-banan.

JON ANDER GALARRAGA
BIOLOGOA

Baina hortik bueltan, aztarrika, beste ar bat badago, ar gizajoa deituko dioguna, non hegan egiteko arazoekin jaio zena, beraz bere bizitza osoan ez da hain ongi elikatu eta bere osasuna ez da ona, mugitzeko arazoak ditu eta soilik habia ziztrin oker bat egiteko gai izan da aurten. Ia erorian dagoen baserri bat dirudien habia honetara ez da etorri inongo emerik eta ar gizajoa, emerik gabe geratu da. Hotzean pentsatzen jarrita, txepetx espeziearen onerako, hobe ar gizajo hau ez ugaltzea, zeren bere ezaugarriak ez dira egokiak, hobe ar osasuntsua ugaltzea espezie osasuntsu eta bikain bat izaten jarraitzeko etorkizunean.

Baina zer gertatzen da ar gizajoa, ar osasuntsuaren lanaz baliatzen bada? Ar gizajoa, gizajoa izango da baina agian ez da inozoa. Eta ar osasuntsua, lehen emearekin Alegiako Bulebarrera begira duen habian, xirrikerietan ari den bitartean, ar gizajoa, emez beterik dauden beste arraren habiak bisitatzera joango da, ziurrenik buruan maskara beltza jantzita. Banan-banan habia guztietan sartuko da, supergaizkile bat balitz bezala eta bere super abiadura erabilita, super gainka azkar bat egingo die eme bakoitzari, emea erdi lo dagoela, eta ar osasuntsua lehen emearekin nahaspilatuta dagoen bitartean. Hurrengo egunean, ar osasuntsuak, bere bigarren, hirugarren... eta hamargarren emea bisitatu duenean, denek pikutara bidaliko dute, jada ernalduak egonik bigarren ar batentzako gogorik ez baitute. Ar osasuntsuak, saiatzen jarraituko du, baina emeek behin eta berriz atzera botako dute.

Hilabeteak pasako dira eta ar osasuntsuak zer pentsa izango du bere eme guztiak arrautzak erruten ikusten dituenean eta kumetxoak ateratzen hasten direnean, bere kalkuluen arabera, soilik eme batekin egon zen eta hamar eme ditu ugalduta. Baina edozein espezieko arrak bezala, bere burua engainatzen hasiko da, agian kalimotxo gehiegi edan zituen gau horretan... agian uste zuena baino eme gehiagorekin egon zen... eta azkenik, eme horien kumeak bereak direla onartuko du, bere ar arrakastatsu izatearen harrotasuna erakutsiz.

Ar gizajoa bestetik litekeena da hurrengo asteetan hilda egotea, osasun egoera txarrak eta nola ez, esfortzuak eraginda. Baina ar gizajoak bederatzi eme ugaldu ditu eta ar osasuntsu, labeldunak soilik bat. 1-9 ar gizajoaren alde. Txepetxen paradisuan irribarre batekin egongo dela, egin duen «gaixtokeriaz» harro!

Eta hemen ehunka aldiz errepikatuko den adibide bat, beti ez da osasuntsu, dotore, indartsu eta harroena gailentzen, askotan, ezkutuan, iluntasunean, gizajo izena duten arrakastatsu asko agertzen dira eta nola ez, beren kumeak ere honelakoak izango dira, gizajo arrakastatsuak!

Agenda

OSTIRALA ABENDUAK 14

ALEGIA

BERTSO DESAFIOA

22:30. Bertso desafioa: Alegi v. Aiztondo, gaztetxean.

ALTZO

EGUBERRIETAKO EMANALDIA

18:30. Loatzo Musika Eskolako ikasleen emanaldia izango da, Batzarremuñon.

ADUNA

DOKUMENTALA

20:00. *Aralar, mundua leku den lurra*, dokumentala, udaletxean. Ondoren, zuzendariekin solasaldia.

ASTEASU

PELLO ERROTAREN MENDEURREN EKITALDIA

22:00. Pello Errotaren mendeurren ekitaldietako azken jarduera hitzaldi berezi bat izango da. Koldo Izagirrek Pello Errotari buruzko saio bat egingo du, Amaia Agirre eta Haritz Mujika bertsolariekin.

BERASTEGI

ELKARTASUN AZOKA

16:15–19:00. Bigarren Eskuko Materialaren Azoka, aparkaleku Azpiko lokalean. Soberan edo erabiltzen ez diren gauzei etekina ateratzeko azoka izango da. Ateratzen den dirua Etiopiako Wukro herrira bidaliko dute.

IKAZTEGIETA

HITZALDIA

19:00. *Mendebaldeko sahararren borroka, historia eta istorioak* ikus-entzunezko hitzaldia, herriko sahararren eskutik, udaletxeko aretoan.

OREXA

ESKERTZA EKITALDIA

19:00. Oihan Txiki kooperatibari eskertza eta zoriontze ekitaldia izango da, Ostatuan. Pintxo potea egingo da, eta gazta sariduna probatzeko aukera egongo da, Gari eta Iñaki trikitilariek alaituta. Ondoren, bokatak eta postreak jateko aukera egongo da eta festa luzatzeko aukera, DJ Txokorekin.

TOLOSA

ASANBLADA IREKIA

17:00. Tolosaldeko gazte mugimenduko jardunaldiak antolatzeko izango da asanblada irekia, Abastosen.

HITZALDIA

18:30. Familientzako mindfulness-a, *Guraso kontzienteak seme-alabak zoriontsu izenpean*, Altzoan elkarteak antolatuta, gaztelaniaz, kultur etxean.

MUSIKA

19:30. Los 3 taldearen son kubatarra zuzenean Kafe Iruñan, Jon Urbizu saxofoi altuan gonbidatu bereziarekin.

DANTZA

19:30. *Aukeran 20 urte*, dantza emanaldia Leidor antzokian.

MUSIKA

22:00. Jok bakarlaria, Box.An.

MUSIKA

22:30. Sofa eta Tooth taldeen kontzertua, Bonberenean. Sarrera: 8 euro.

ZIZURKIL

KIROL ASTEA

11:00. Helduei zuzendutako gimnasia tailerra Atxulondon.

17:30. Ergometroak probatzeko aukera plazako estalpean. Tolosaldeko Arraun Klubeko neskekin saio bat egiteko aukera.

19:00. *Neska, gaztea eta kirola egiteko grinaz. Zein aukera dauzkat?* Arrauna, boleibola, futbitoa, futbola, halterofilia, txirrindularitza, mendi lasterketak, pilota. Aukera guztien berri Atxulondo kultur etxean.

LARUNBATA ABENDUAK 15

ALEGIA

GAZTETXEAREN 31. URTEURREN EGUNA

11:00. Pilota finalak.

13:00. Bertso poteoa.

14:30. Bazkaria, eta jarraian karaokea

18:30. Txaranga

22:30. Kontzertuak: The Potes, MC Onak eta Rotten XIII.

ALTZO

PROIEKZIOA ETA KANTU AFARIA

19:00. *Gure Haundiaren Ibilerak* herri antzerki ibiltariaren bideo-proiekzioa, Batzarremuño Kulturgunean.

21:00. Kantu-afaria izango da Ostatuan.

AMASA-VILLABONA

IKUSKIZUNA

22:30. *Laida pilota*, ikuskizuna Olaederra kiroldegian.

BERASTEGI

ELKARTASU AZOKA

11:30–13:00. Bigarren Eskuko Materialaren Azoka, aparkaleku azpiko lokalean. Soberan edo erabiltzen ez diren gauzei etekina ateratzeko da. Ateratzen den dirua Etiopiako Wukro herrira bidaliko dute.(Igandean ere izango da)

IRURA

BERTSO BABARRUN JATEA

11:00. Herriko baserrietan bisita gidatua babarrunaren prozesua ezagutzeko.

13:30. Bazkaria umeek, Gazte Alaiak elkartean.

14:30. Bazkaria, Oihana Iguaran eta Haritz Mujika bertsolariekin izango da.

TOLOSA

ENERGIA AZOKA

10:00–14:00. Stand-ak, informazio panelak nahiz askotariko gailuak ezagutzeko aukera: biomasa galdara, eguzki energia baliatzeko instalakuntzak, aerotermia instalakuntzak, tenperatura baxuko berogailuak, LED argiteria nahiz eraikuntzak isolatzeko materiala... 11:30ean eta 12:30ean, bisita gidatuak.

TXOTXONGILOAK

18:30. *Mr. Train* txotxongiloak, Topic

zentroan. Sei urtetik gorakoei zuzendutako hitzik gabeko saioa da, Kataluniako Tukitrek taldearen eskutik.

MUSIKA

20:00. Kup taldearen kontzertua, Santa Klara elizan.

MUSIKA

22:30. Elle Belga eta Amorante taldeek kontzertua eskainiko dute, Bonberenean. Sarrera: 8 euro.

ZIZURKIL

KIROL ASTEA

11:00. Haurrentzako kirol eta jokoak Intxaur frontoian.

Ondoren. Hamaiketakoa eta opari banaketa.

16:00 – 18:00. Plazako estalpean umeentzako rokodromoa.

22:00. Haurren gau krosa, 2006tik aurrera jaiotakoentzat.

22:30. Zizurkilgo XXII. Gau Krosa.

IGANDEA ABENDUAK 16

ABALTZISKETA

MENDI IBILALDIA

09:00. Adin guztientzako mendi ibilaldia, plazatik abiatuta, herriko mugak ezagutzeko.

ALEGIA

GAZTETXEAREN URTEURRENA

16:00. Arratsalde-pasa: Mahai jokoak, bakarlaria, pintxo-potea... gaztetxean.

GAZTAINA JATEA

16:00. Gaztaina erreak jateko aukera izango da, plazan.

AMASA-VILLABONA

MUSIKA

11:00. Loatzo Musika Eskolako ikasleen emanaldia, Eresargi eta Eresargi Txiki abesbatzarekin batera, Amasako elizan.

ELDUAIN

ARGAZKIA ETA HAMAIKETAKOA

12:30. Anabelen herriko presoaren urtebetetzea dela eta argazki aterako da eta hamaiketakoa egingo dute, plazan.

ORENDAIN

HERRI BATZARRA

12:00. Orendainen herri batzarra egingo dute, 12:00etan, udaletxean. Aurreko urteetan egin moduan, etxe bakoitzetik ordezkari bat gutxienez joateko deialdia egin du udalak.

TOLOSA

ORAIN PRESOAK ARGAZKI A

11:30. Orain presoak ekimenarekin bat eginez, Triangelua jendea bildu nahi da argazkia ateratzeko.

MUSIKA

19:30. Guzural eta Olor taldeak, Bonberenean.

ZIZURKIL

KIROL ASTEA

11:00. Halterofiliako XXV. Gabonetako torneoa Intxaur frontoian.16:00. 3x3 saskibaloi txapelketa Ugare auzoko kantxan.

ASTELEHENA ABENDUAK 17

ABALTZISKETA

UMEEN EGUNA

12:00. Amezketako Oteiza-Goikoa artegira eta gaztandegira bisita.

ANOETA

MUSIKA

18:30. Loatzo Musika Eskolako ikasleen emanaldia izango da, elizan.

ALTZO

SOLASALDIA

19:00. *Gasoila, gasolina edo elektrikoa... Nolakoa izango da etorkizuneko ibilgailua eta zein erabilpen izango du?*, Jokin Aldazabal, Euskadi Irratiko *Ekosfera* saioko arduradunaren eta Javier Oskoz, Don Boscoko automozio eta marketing arduradunaren eskutik, Batzarremuñon.

TOLOSA

ODOL EMATEA

18:00–20:30. Hileroko odol-ateratzea izango da, Topagunea gelan (1.solairuan).

ZIZURKIL

MUSIKA

18:30. Loatzo Musika Eskolako ikasleen emanaldia izango da, beheko elizan.

ZINEMA

EL CASCANUECES Y LOS CUATRO REINOS
Larunbata (17:00). Igandea (17:00). Haur zinema, hiru dimentsiotan.
Gurea, Amasa-Villabona.



BOHEMIAN RHAPSODY
Larunbata (19:30 eta 22:00). Igandea (19:30). Astelehena (21:00). Ikuslearen eguna.
Gurea, Amasa-Villabona.

HORMAN ERLOJUA DUEN ETXEA)
Igandea (17:00). Haur zinema familia osoarentzat, euskaraz.
Leidor, Tolosa.

MALOS TIEMPOS PARA EL ROYALE
Larunbata (19:30 eta 22:30).
stua testua testua testua testua testua.
Leidor, Tolosa.

COLETTE
Igandea (19:30 eta 22:00).
Leidor, Tolosa.

JAINKOAK EZ DIT BARKATZEN
Astelehena (20:30). Ikuslearen eguna. Jatorrizko bertsioan, gaztelerazko azpidatziekin.
Leidor, Tolosa.

Zerriak eta txorizoak

JOKIN SOROZABAL

San Martin, Santa Luzi
San Tomas gaixoak
eskatzen dizkiegu
mokadu goxoak
Urtea bukatuta
zer gaude jasoak
politiko ustelak
sexu erasoak
justizia kontutan
lehengo arazoak,
lehengo zerriak eta
lehengo txorizoak

Doinua

Bizitzak izaten du...

Besteen zapatak

Gure arazoak beti dira garrantzitsuenak geuretzako, eta nik uste denok pentsatzen dugula era horretara, nahiz eta askotan, gure problemak besteenak baino xumeagoak izan, baino gureak dira, eta garrantzitsuenak dira. Krisi garaietan, gu baino okerrago bizi direnak behar ditugu gure bizitza nolakoa den konturatzeko, ez daukagu nahikoa gure etxean daukagunarekin, besteen etxeak behar ditugula dirudi geurea kalibratzeko.

Askotan gertatzen zaigu gertu dauzkagun gauzak ez zaizkigula behar bezain onak iruditzen, edo besteek dauzkaten gauzak gureak baino askoz ere hobeagoak iruditzen zaizkigula. Egiten ez dugun ariketa bat da besteen zapatetan jartzearena, eta harrituko ginateke zenbat zapata desberdin dauden, eta seguruena, gureak ez ziren okerrenak izango.

NATALIA GARMENDIA
MUSIKARIA

Besteen ikuspuntuak ezagutzen saiatzea, askotan erosoa ez den arren, onuragarria litzateke eta ikuspuntu askotarikoak aberastu egiten gaitu. Noizean behin, momentutxo baterako bada ere, besteen oinetakoetan sartu beharko ginateke, eta oinetako horiekin egiten diren pausoak ibili.

Akaso orduan, konturatuko ginen gure zapatak nolakoak diren, eta haien balioaz konturatuko ginateke.

Krisi garaietan, gu baino okerrago bizi direnak behar ditugu gure bizitza nolakoa den konturatzeko

KOMIKIA **GORKA SALABERRIA**



Kirolaldia

Euskaraldia aprobetxatuz Galtzaundi euskara taldeak, 2018an martxan jarritako Tolosako kirol entitateen euskararen erabilerari buruzko ikerketaren datuak eskaini zituen. Herriko kirol kluben ohiko funtzionamendu eta entrenamenduetako jardunaren datuak bildu ditu ikerketa honek, zalantza eta sorpresa ugari sortu zizkidanak.

Lehen ezustekoa, bilerara deituta zeuden ia hogei kirol entitateetatik hiru bakarrik azaldu zirela ikustea. Ordutegi arazoengatik izango zela pentsatu nahi nuen, baina buruak ezetz esaten zidan; gai honek horren interes gutxi sortzen al du? Bigarren sorpresa, Tolosako kirol jardunean euskararen erabilerak %80tik gora markatu duela.

Pozteko berria da inolaz ere, baina datua entzun bezain laster zalantzek itzala egin zioten %80ari. Zein garratza den horrelako berri pozgarriekin ezin gozatzea. Ez ditut kirol talde guztiak ezagutzen, baina gertu ditudanak eta kasualitatez jende gehien mugitzen dituztenak, ez direla datu horietara iristen uste dut.

IÑIGO IRURZUN
IRAKASLEA

Hezitzaile moduan aritzen diren askok ez dute euskara erabiltzen ez kantxan ez kantxatik kanpo, eta eredu diren horiek ez badute euskaraz egiten jai daukagu. Egia da, hala ere, klub askok oinarrizko balio bezala dutela euskaraz aritzea, baina egunerokoan norbanakoak hartzen dituen hizkuntza ohiturei ez zaie behar adina balio ematen, kirola ezagutzen ari diren gazteek kirol erdalduna barneratzen dutelarik.

Zalantzak eta ezustekoak alde batera, hobe izango dugu berri pozgarriekin gelditzea: Tolosako kirol kantxetan euskararen erabilera kalekoa baina handiagoa da. Aisialdian izan ohi ditugun hizkuntza hautuek, beste edozein arlotan izaten ditugunak baina garrantzia handiagoa izaten omen dute. Ez gaude kexatzeko moduan. Zorionak beraz euskaraz disfrutatu eta izerditzen duten guztiei!

Hezitzaile moduan aritzen diren askok ez dute euskara erabiltzen ez kantxan ez kantxatik kanpo

EGURALDIA

OSTIRALA

Eguraldi kaxkarrarekin jarraituko dugu, nahiz eta arratsaldean hobera egin. Eguerdi aldera arte, ipar-mendebaldeko haizearekin, euri zaparrada batzuk izango ditugu, tarteka mardul xamarrak. Arratsaldean pixkanaka haizea hego-mendebaldeko ukitua hartzen hasiko da eta atertzen hasi eta ostartetxo batzuk irekiko dira. Termometroa 8-10º bitartean kokatuko da. Goizean elur maila 1200 metrotan kokatuko da, arratsaldean gora eginez.

IKER IBARLUZEA
EGURALDI MUTILA

LARUNBATA

Hego-haizea itzuliko da baina eguraldia erabat sosegatu ezinik ibiliko da. Hodeitza handia egun osoan zehar, batez ere, erdi eta goi-mailako hodeiak izango dira eta hodei hauek egunean zehar euri pixka bat utziko dute. Gehien bat, goizean eta eguneko azken orduetan egingo du euria. Azken orduetan ugariagoa. Erdi-mailako geruzetan aire epelagoa sartuko duenez lurrazalean termometroek gora egingo dute, eguneko erdiko orduetan 13-15 gradu bitartean joaz goia.

IGANDEA

Giro kaxkarra. Larunbatean bezalaxe egun osoan hodeitza handia izango dugu eta hodei hauek euria utziko digute. Euri gehien goizean eta arratsaldeko lehen orduak arte izango dugu. Arratsalde partean zaparradak urriagoak eta tartekatuagoak. Haizeak mendebaldeko norabidea izango du, eta erdi eta goi-mailako geruzetan aire hotzagoa sartuko denez, termometroek behera egingo dute: 10-12 gradu.

OSTIRALA 14		IGANDEA 16	
LARUNBATA 15		ASTELEHENA 17	

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburrak argitaratzeko deitu **943 65 56 95** zenbakira, idatzi **ataria@ataria.eus** helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak **iragarkilaburrak.eus** webgunean

FARMAZIAK

ABENDUAK 14, OSTIRALA
IBARRA
Egunekoa. Mujika, E.
Euskal Herria kalea, 3.
Telefonoa: 943 67 09 15.

ABENDUAK 15, LARUNBATA
TOLOSA
Egunekoa. Santamaria, I.
Nafarroa etorbidea, 2.
Telefonoa: 943 65 46 10.

ABENDUAK 16, IGANDEA
TOLOSA
Egunekoa. Morant, R.
Zabalarreta lorategiak, 1.
Telefonoa: 943 67 38 49.

ABENDUAK 17, ASTELEHENA
TOLOSA
Egunekoa. Olarreaga, I.
Korreo kalea, 2.
Telefonoa: 943 67 01 28.

EGUNERO GAUEKO GUARDIAKO FARMAZIA:
TOLOSA • Morant, R.
Zabalarreta Lorategiak, 1.
Tel.: 943 67 38 49.

ATARIA IRRATIA

OSTIRALA
09:00. **Pasahitza**.
Iker Ibarluzearekin eguraldi iragarpena, solasaldi politikoa Begoña Tolosa (EAJ), Cristian Fernandez (PSE-EE) eta Pello Atxukarrorekin (PP), Tolomendiren tartea eta Galtzaundiren *Hitzez Hitz* Igor Agirrerekin.
11:00. **Hamaiketakoa.** Ibarraldeko berriak.
12:00. **Entzuteko jaioak** musika saioa.
16:00. **Zebrabidea.**
18:00. Goizeko saioen onena.
21:00. **Mingaina Txulorak** erotikari buruzko saioa Jon Imanol Etxaberekin.

LARUNBATA
11:00. Trikiti musika.
12:00. **Hauspo artean** trikiti saioa, Ander Malbadi eta Eneritz Aulestiarekin.
14:00. **(H)ari naizela.** Imanol Artola *felix*-ek gidatutako bertso saioa.
16:00. **Entzuteko jaioak** musika saioa.
17:00. **Kokondo** Oskar Tenarekin.
18:00. **Entzuteko jaioak** musika saioa.

IGANDEA
10:00. **Asteko onena.**
16:00. **Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finala**.

ASTELEHENA
09:00. **Pasahitza**. Asteburuari begirada, bidaiarien tartea eta Aitor Mendiluze kale kantoitik.
11:00. **Hamaiketakoa.** Villabona-Aizotno eta Anoetaldeako berriak.
12:00. **Entzuteko jaioak** musika saioa.
16:00. **Zebrabidea.**
18:00. Goizeko saioen onena.
21:00. **Hauspo artean** trikiti saioa, Ander Malbadi eta Eneritz Aulestiarekin.

28 KANALA

OSTIRALA
13:30. Gaurkoan Tolosaldetik.
16:30. 1,2,3 Hemen da Miru.
17:30. Gaurkoan Tolosaldetik.
21:30. Gaurkoan Tolosaldetik.
22:00. Elikatu.
22:30. Plazako aulkitik.
23:30. Gaurkoan Tolosaldetik.

saridunak

Atarikideentzat **kaxa beltza** daukagu

• Aranzazu Urdangarin (Berastegi)

Ataria jarriko da harremanetan

Errigorako 'kaxa beltza'
Nafarroako produktu sorta

Berezi

NEURRI BEREZIAK
Gazte eta emakumeentzako moda

44-64 neurriak

www.berezitallasespeciales.com

Errementari kalea, 3 , Tolosa / Tel.: 943 674 965

berezitallasespeciales f

Gabon hauetan oparitu

%30 DESKONTUA
eguzkitako
betaurrekoetan

Gure betaurreko guztiak ***bilduma berrietakoak dira***

Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

San Frantzisko, 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

www.multiopticasgipuzkoa.com

ORIA elkartea
merkatarien
Villabona - Zizurkil

Zatoz Gabonetan Villabona-Zizurkilera

- 1.000€ zozketan (125€ko 8 sari) herrian erosteagatik
- Jolas parkea Errebote plazan eta Txistulari plazan
- Umeentzako tailerrak Gazteleku
- Erakusleiho lehiaketa

Euskadi, aurrelana, bien común

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

AMASA-VILLABONA
Villabonako Udala